

# noaua

**Telmo Esnal: “Jende asko hurbiltzen ari da *Dantza* filmaren proiektziora”**

**Ikastetxeetako danborradak ostiral honetan egingo dira**



Argazkia: Mikel Usabiaga

**Andatza M.K.T. taldeko zuzendaritza berria: “Bestelako ekintzak ere txertatu nahi ditugu, jende berri gehiago erakartzeko”**



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industria serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

GOLDWELL  
ELUMEN

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*

**mistoa**

Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

## HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

**MATRIKULAZIOA IREKITA**  
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- HIZKUNTZAK:  
INGELESA MINTZA PRAKTIKA...

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 [info@epalarte.eus](mailto:info@epalarte.eus)  
[www.epalarte.eus](http://www.epalarte.eus)

*Usurbil Autoak*

Zumartegi Industrialdea, Aitzetorre kalea, 24  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)  
[usurbilautoak@gmail.com](mailto:usurbilautoak@gmail.com)  
Telf: 943 36 10 79

SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

PANDA 4X4



FIAT

TALENTO



FIAT

QUBO 2



FIAT

500X



FIAT

SPORTAGE



KIA

SORENTO



KIA

STONIC



KIA

STONIC



KIA

677 109 902  
[usurbilautoak@gmail.com](mailto:usurbilautoak@gmail.com)

## Albiste iruditan

# Ketamak abiatu du Saizarreko txotx bolada berria

**K**etama izan da Saizar sagardotegiko txotx bolada berria hasteko ohorea izan duena. 14 urteko etenaldiaren ostean "No estamos locos Tour 2019" birarekin oholza gainera itzuliko da musika taldea. Euskal Herrian, Donostian eta Bilbon eskaintzekoak dituen kontzertuen aurretik, Ketamako kideak Saizarren izan ziren urtarilaren 10ean.

"Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!" hitzak ahoskatuz, eta sagardotegiko kupeletik bete berri zituzten edalontziak eskutan, Ketamak izan zuen txotx bolada berriko Saizarreko lehen tragoa hartzeko aukera. Ekitaldiak jakinmin handia piztu zuen. Euskal Herriko nahiz Espainiako telebista kate ezberdinetako kamerariak eta kazetariak hurbildu ziren.



"Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria" oihukatzearekin batera zabaldu zuten lehen kupela.

## Laburrean

### Datozen ikastaroak KzGunean

- Urtarrilak 16-25, 9:00-11:00 "Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako".
- Urtarrilak 21-22, 11:00-13:00 "Enplegu bat lortu".

Informazio gehiago: Kale Nagusia 37 / 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

### 'Dantza' pelikula ikusteko sarrerak salgai

Urtarrilaren 27an igandearrekin Sutegin, arratsaldeko 19:00etan. Sarrerak aurrez eskura daitezke NOAUA!n eta Lizardi dendan 6 eurotan. NOAUA!ko bazkideek (bazkide bakoitzeko sarrera bat) soilik 4 euro. Baina hauek NOAUA!n bakarrik daude salgai.

### Urtarrileko azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoan eskubideen aldarria plazaratzeko hitzordu berria ate joka dugu. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, elkarretaratzea egingo da urtarilaren 25ean ostirala iluntzeko 20:00etan hasita, Mikel Laboa plazan.

# noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaUA.eu

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaUA.eu:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria


Jesus Urbieto, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

## Sareak harrapatu ez gaitzan

**D**uela hamarkada bat edo gutxiago, pentsaezina irudituko zitzaigun, baina prentsa idatziak, telebistak edo irratia duten komunikazioarako abiada aisa gainditu eta mundua norbere betaurrekoetatik erakusteko lidergoan dira egun sare sozialak. Hedabide “adinduagoek” haien uhin eta irudietan txertatu behar izan dituzte Twitter, Facebook eta abarrak, inkomunikazioaren sareetan ez jausteko.

Azken orduko albistea berehala baita historia gaur egun. Segundu gutxiko tartean gerta daiteke gaurkoa edo biharkoa, atzo izatea, pantailaz bestaldekoak eta alde honetakoak, gu alegia, adi ez bagabiltza.

Mundu zabal baina ez osoari irekitako informazio eta iritziak trukatzeko leiho handi hauek klik bakar batera

ditugu gure ordenagailu, baina batez ere mugikorretan. Nahi dugun egunkaria, eguneko une zehatz batean irakurtzetik, une oro honek edo hark esandakoa irensteko aukera eskaintzen digute. Irenstea, sarritan mugaririk gabe. Egun osoa, zizka-mizkak jaten pasako bagenu bezala, mimoz sukaldaturiko platera eder bat dastatzeko astia hartu beharrean.

Handik eta hemendik irakurri, ikusi, entzun... eta ezer gutxi barneratu. Zaila da sare sozialetan titularrak aurkitzea, eta errazagoa, milaka hari, istorio, argazki, eta injustizia artean galtzea. Azken xehetasuna ezagutzen dugu une oro, baina xehetasun horrekin geratzen gara, xehetasun horrek sinbolizatu edo ezkuta dezakeen errealitate sakonaz ahaztuta. Nabarmendu beharra duzu, sare sozialetan “norbaik” izan nahi baduzu.

Ezagutzen ez duzun munduari hitz egin, zure mezua noren-gana helduko den jakin gabe adierazi.

Eta zenbat aldiz husten den barrua sare sozialetan. Ezinegonak, frustrazioak bideratzeko hedabide ere badira. Hitza hartu nahi baitugu, ikusgarri egin, gure haserre eta poza partekatu, entzun edo kontuan har gaitzatela. Askotan galdetu gabe, erantzun asko begi bistan uzten dituzte sareek. Agerran baita, barne-barnekoak ditugun pentsamendu, sentipenak edota jokabideak. Sarritan inkontzienteki baina halere klik bakar batekin, modu inkontrolatuan bidegabeki zabalduko mezuak.

Eta sareetan harrapatuak gaudelako gustura egongo denik ere egongo da. Mundu birtualean entretenituta eta katetuak gabiltzan artean, munduak bere nahierara jira

eta buelta egitea nahiko due-nik izango da. Halere, burua jaitsita goaz kaletik, mugikorri begira. Begirada altxa eta aurrean duguna ez ikusteraino, edo aurrekoarekin tupust egiteraino. Pantaila bidez ikusi eta bizi duguna, bizi eta ikusteko gai ez gara pantailatik kanpo, edo ezikusiaarena egiten dugu.

Asko ari dira erakusten sare sozialak, txiokatu edo nork bere horman idatzitako “postek”, hitz edo irudien bidez agertzen duten horretatik haratago. Lerro artean irakurtzen hasiz gero, agerikoa da. Birtualtasunetik kanpo lanketa sakona egiteko bidea irekitzen duena. Inoiz jorratu beharreko bidea, egunen batean, guztiz burumakur eta inkomunikazioaren sareetan harrapatuta, kateatuta amaitu nahi ez badugu behintzat.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

## Tripontzia Urteberriko Sariaren zozketa

Gure Esku Dagoren sariketa-rako txartelak erosi dituzuenok adi. Astelehen goizean egingo dute Tripontzia Urteberriko Sariaren zozketa, soilik banatu diren txartelen artean. 5 euroren truke eskura ditzake-

zue Artzabal, Benta, Bordatxo, Guria, Zendoia, Laukote eta Opil-Goxon hain zuzen. Toki guztiotan ere Gure Esku Dagoren 2019rako egutegiak erosi ahalko dituzue 5 eurotan.

Honatz irabazi ahalko ditu-

zuen sariak:

- 60.000 euro saritutako zenbaki eta seriearentzat.
- 2.000 euroko 7 sari zenbaki bereko gainontzeko seriearentzat.
- 1.500 euroko 8 sari saritu-

tako bigarren zenbakiarentzat.

- 1.000 euroko 8 sari hirugarren zenbakiarentzat.

**Informazio gehiago:**  
gureeskudago.eus

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

## Ika-mika

## Borrokan aurrera pentsio publiko duinen alde

**D**uela urtebete, urtarri-laren 15ean, pentsiodunen mugimendua, bai Hego Euskal Herrian, bai eta estatu mailan ere, mobilizatzen hasi ginen PPren gobernuak inposatutako pentsioen %0,25eko igoeraren aurka, eta baita pentsio publiko duinen alde ere.

Egun horretan hasita, elkarretaratzeak egiten ari gara herriko plazetan eta baita bailara eta probintzien mailan ere. Milaka pentsiodunok parte hartuz.

Gure eskubideen aldeko borroka honetan jubilatuta eta pentsiodun guztien ahaleginak posible egin du hobekuntza txiki batzuk lortzea,

baina ez da nahikoa. Lortu dugu, adibidez, pentsiodunen mugimenduaren aldarrikapenak alderdi politikoen agenda politikoetan aurkitzea, hauek jarrerak hartzea behartzea, eta Madril, Iruñea eta Gasteizko gobernuak pentsioak hobetzeko hainbat neurri hartzea behartzea.

Lortu dugu, pentsioak oro har %1,7 eta %1,6 igotzea 2018an eta 2019an hurrenez hurren. Gutxieneko pentsioak %3 igotzea; alargunen soldata arautzailearen kalkulua %55 eta %60koa izatea 2018 eta 2019an hurrenez hurren eta iraunkortasun faktorearen aplikazioa 2023ra arte luzatzea.

Aurrerapen txiki hauek, egia

da, oso urruti daude gure errebindikazio nagusien aurrean, hala nola, pentsioen KPI igoera urterokoa izatea bermatzea. Baita 2011 eta 2013ko pentsio laboralen erreformak ere. Gure errebindikazioen zerrendan sartu behar dugun beste aldarrikapen bat da kalitatezko zerbitzu publikoak lortzea, gure bizitzaren azken fasean duintasunez bizi gaitezten.

Esperientziak erakutsi digu, oraindik lortzeko dauzkagun errebindikazioak eskuratzeko borroka egin beharra daukagula orain arte bezala, eta hauteskunde municipal, foral eta Europako testuingurua baliatu behar dugula alderdi politikoei eskatzeko, posizio-

natu daitezela gure eskaeren aurrean. Oso kontuan eduki beharko dute gure eskaerak legitimoak direla eta gure kontsigna edozein gobernuaren aurrean pentsioak defendatzea izango dela.

2019ko urte honetan berriro ekin diegu kontzentrazioei eta iaz bezalaxe kalean jarraituko dugu, ziur gaudelako borroka hau irabazi egingo dugula, ez bakarrik gure pentsioak defendatzeko, baita ondorengo belaunaldienak ere.

Oharra: Usurbilgo datorren elkarretaratzea, urtarrilaren 31n 20:00etan Mikel Laboa plazan.

**Pentsionistak Aurrera.**

## Ika-mika

## Diesela eta Titanic

**2**050. urterako diesel motorra desagertu egingo dela iragarri zuen orain aste batzuk "Trantsizio ekologikorako" Espainiako Ministroak. Hori guztia arrazoitzeko, Klima Aldaketa eragiten duten isurketak murriztu beharrak daudela gizarteratu da publikoki.

Manipulazio sozialerako kanpaina asko bizitakoak gara Euskal Herrian eta honako hau, beste bat gehiago da. Diesel motorra desagerrarazteko neurrien egiazko arrazoia, ez da hori, ez dauka zerikusirik Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko "asmo onekin"; Diesel motorrak ez du etorkizunik, hain zuzen ere, diesel motor-erregaiaren ekoizpena gero eta mugatuagoa delako eta diesela ekoizteko baliabideak agortzen ari direlako. Horixe da benetako arrazoia, "Petrolioaren Tontorra" deitzen zaion

arazoarekin dago beraz hori guztia lotua (Google-en irakur daiteke, "Pico del Petróleo y la Curva de Hubbert").

Beste behin ere, engainatu nahi gaituzte. Gezurretan ari dira, diesela kutsakorra dela esanez, atzean dagoen egia ezkutatu nahirik. Gasolioaren ekoizpen maila lau urtez, ez gora ez behera egon da, eta orain, beherantz doa. Diesela ekoizteko gaitasuna, 2017an lehen aldiz murriztu egin zela erakusten dute datuek.

Ministroaren adierazpenak, Titanic itsasontziak izebergaren kontra talka egin zueneko gertaeraren parekoak dira. Pelikulan ikus daiteke zer nolako ondorioak ekarri zituen pertsona arruntentzat. Titanic, ordu gutxiren buruan ondoratu zen, "Petrolioaren Tontorra" ere, urte gutxiko kontua izango da.

"Petrolioaren Tontorri" lotu-

tako ondorioak, larriak izango dira eta hainbat alorretan gainera. Badira bi eremu ordea, gure oinarriko beharretan eragina izango dutenak, Elikadura eta Energia hain zuzen ere.

10 urte inguru pasa dira eremu politiko eta gizarte kolektibo zenbaitetan gai honi buruz hitz egiten genuenetik; eta Udaleko Erregistroan, gai honi buruz informatuak egoteko dokumentuak eta proposamenak aurkeztu genituen (Usurbilgo Udaleko Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an egindako batzarren aktan irakur daiteke). Udalean bertan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako Zuzendaritzan ere, ikerketa bat aurkeztu zen gainera, 2013ko datarekin. Kaxaren batean egongo da. Usurbil osorako egitasmo bat zen, Elikadura arloan Usurbilek, herri bezala bere burua hornitu ahal izateko proiektu

bat. Gaur egun Euskal Herrian bertan, badaude martxan Elikadura Subirautzari loturiko esperientzia oso interesgarriak; Urduña da adibide horietako bat, guretzat erreferentzia izan daitekeena. Energia arloko erreferentzia berriz, Ispaster herria izan daiteke.

Euskal Herrian eta Usurbilen ere, urte gutxi geratzen zaizkigu arazo honen aurrean prestatuak egotea nahi badugu. Azken 10 urteetan, Usurbilgo Udalen inbertsioetarako aurrekontua bakarrik, garai bateko 2.000 milioi pezeta baino handiagoa izan da. Aurrez adierazitako honi gutxiari buruz, analisi eta berrikuspen kritiko, sakon, zorrotz eta zintzo bat egin beharko litzateke, eta ezbaierik gabe, baita erabaki politikoak hartzeko Usurbilek gaur egun duen ereduaz ere.

**Gabriel Valin.**

# Lankidetzeta hitzarmena, “Auzolan Berri” gizarteratze eta laneratze programa abiatzeko

**G**izarte-bazterketa egoeran diren 15 pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatuko duen “Auzolan Berri” egitasmoa abiatzera doaz Beterri Buruntzako 5 udal (Lasarte-Oriako Udala ez bestea; Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgoak). Udalen gizarte zerbitzuen eta enplegu sailen arteko elkarlanetik jaio den egitasmoa martxan jartzeko lau urterako lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 11n Hernanin.

Martxoan abiatu nahi duten programa honen lehen edizioak bi atal izango ditu. “Batetik, lau hilabetez luzatuko den formazio ibilbidea: parte hartzaileek, oinarriko gozogintzan gaitzeko 330 orduko formazio profesionala, 80 orduko lan-praktikak, gaitasun sozio-pertsonalak lantzeko saioak eta jarraipen pertsonalizatua jasoko dituzte. Formazio fasea bukatzerakoan, bigarren atalaren helburua parte hartzaileak enpresa pribatu



Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo Udalen gizarte zerbitzuen eta enplegu sailen arteko elkarlanetik jaio da egitasmoa.

batean lan kontratua lortzea izango da”. Horretarako, ohar-tarazi dutenez, “3.000-6.000 euro arteko kontratazio diru-laguntzak jarriko dira pizgarri bezala sektoreko enpresen eskuragarri”.

Bost udalek 52.875 euroren

finantzatuko duten egitasmoak, Erroak Bergizarteratze-ko Elkartearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Europako Funts Sozialak konfinantzatutako “Sendotu Aldiberean” programaren laguntza du.

Formazioa eskainiko den egoitzan, Hernaniko Traspakar sukaldeetan egin zuten agerraldian aurkeztu zuten egitasmoa urtarrilaren 11n eta bertan sinatu zuten bost udalek egitasmo hau gauzatzeko lankidetzeta hitzarmena.

## Gorakada langabezia tasan

Urtea langabetu kopuruan izandako gorakadarekin agurtu zuen udalerririk honen. Azaroan 222 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak

Usurbilen, abenduan 245. Buruntzaldean lau langabetu gehiago abenduan, 3.064 eta Gipuzkoan 32.038tik 31.678ra murriztu zen lanik gabeko herritar kopurua.

**324 lan kontratu hitzartu ziren** Bada tarterik gizonetako eta emakumezkoen artean. 110 gizonetako langabetu zituen Usurbilek abenduan, 135 langabetu emakumezko. Aldiz,

172 gizonetako kontratuak erregistratuak ziren, eta 152 emakumezkoenak. Guztira, 324 lan kontratu hitzartu ziren, ia denak, 307 aldi baterako.



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behe LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen  
publizitatea  
hemen

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaia.eus

## ALDAMU



### KONPONKETAK

KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

## Hobekuntzak udaltzainen zerbitzuan

Udalak Udalberri aldi-kari bidez iragarri duenez, udaltzaingoaren zerbitzua indartuta hasiko du urte berria. Iragarri dituzten aldaketen artean, udaltzainen zerbitzuan urteko 32 larunbat arratsaldeetan udaltzain bat gehiago izango dela, bi guztira. Aldaketa eta hobekuntzekin modu honetara eskainiko dute udaltzaingoek eguneroko zerbitzua:

### Udaltzaingoaren lan ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 7:30-21:00 (goizez bi udaltzain eta udaltzainburua, arratsaldez bi udaltzain).
- Larunbatak eta jai egunak: 9:00-21:00 (larunbatetan bi udaltzain goiz eta urteko 32 larunbat arratsaldeetan ere bai. Jai egunetan udaltzain bakarra egun osoz).
- Igande eta gauak: zerbitzurik ez.



Udaltzainen zerbitzuan urteko 32 larunbat arratsaldeetan udaltzain bat gehiago izango da, bi guztira.

### Ordutegiz kanpoko telefono-arreta (943 36 11 12):

- Astelehenetik larunbatera: 21:00-23:00.
- Igande eta jai egunak: 9:00-14:00.

### Goardiako ordutegitik at:

- 943 36 11 12 telefono zenbakia-  
ren zentralitako erantzungailu-  
ra bideratu eta aukerok eman-  
go zaizkio herritarri:
- 1 zenbakia sakatu beharko

da larrialden kasuan, eta deia 112ra bideratuko da.

- 2 zenbakia sakatu beharko da ur edo argindar matxuren kasuan. Kasu horretan, deia brigadako goardiako langileari bideratuko zaio.
- 3 zenbakia sakatu beharko da bestelako mezuren bat utzi nahi bada. Mezua erantzungailuan jasoa geratuko da. Udaltzainen lan-ordutegian erantzungo da.

## Ostiral honetan, danborradak ikastetxeetan

Ohi bezala, Donostia Egunari aurre hartuta aurrean bezperan ez, bezperaren bezperan entzungo ditugu primizian lehen danborhotsak Aginaga, Usurbil eta Zubietako ikastetxeetan. Bezpera larunbatez egokitzen denez, ostiral arratsalde honetara (urtarrilak 18) aurreratu dituzte danborrada saioak Udarregi Ikastolan, Aginagako eta Zubietako Eskoletan. Berrikuntza gisa, aurrean, Udarregi Ikastolako HH eta LH-koek emanaldi bateratua eskainiko dute. Bestalde gogoan izan, Zubietako zati bat Donostiako lurren barnean dela. Donostia Eguna igandez egokitu denez, astelehenean jai egingo dute Zubietako Eskolan.

Donostia Eguna dela eta hiri-



Urtarrilaren 18ra aurreratu dituzte danborradak Usurbilgo ikastetxeetan.

burura joan etorria egiteko garrario zerbitzu publikoak indartu ohi dituzte. Informazio gehiago: [lurren.debus.eus](http://lurren.debus.eus) / [euskotren.eus](http://euskotren.eus)

### Urtarrilak 18, ostirala

#### Aginagako Eskola:

Arratsaldeko eskolen baitan danborrada saio emanaldia eskainiko dute ikasleek.

#### Zubietako Eskola:

Arratsaldeko eskolen baitan danborrada saio emanaldia eskainiko dute ikasleek.

### Udarregi Ikastola:

16:00-16:20 HH eta LH ko ikasleek emanaldi bateratua Udarregi Ikastolan, Agerialdeko patioan.

### Donostiara joateko garrario zerbitzu berezia

Donostia Eguna dela eta, hiri-burura joan etorria egiteko garrario zerbitzu publikoak indartuko dituzte. Larunbat gauean, tren zerbitzua izango da orduro 23:54-6:54 Usurbildik Donostiara. Donostiatik Usurbila orduoro 22:50-5:50 artean. Eta igandean, 11:35 aldera tren zerbitzu berezia eskainiko da Donostia aldera.

### Informazio gehiago:

[lurren.debus.eus](http://lurren.debus.eus)  
[euskotren.eus](http://euskotren.eus)

### UEMA-ren udako

### gazte topaketa

### Usurbildik abituko da

Iaz, Salto Gazte Topaketak antolatu zituen UEMA-k eta uda partean Udalerri Euskaldunetako Gazteen Udalekuak Zestoako Sastarrain aterpetxean. Aurtengorako, ekainaren 26an Usurbildik abiatu eta ekainaren 30ean Arantzan amaituko den topaketa ibiltaria. Helburua, gazteak euskal hiztun gisa sentibilizatzea, kontzientziazatzea eta aktibatzea litza-teke. Laster zabalduko dute izen ematea eta eskainiko dituzte argibide gehiago ere.

### Informazio gehiago:

[uema.eus](http://uema.eus)

### Bidaien inguruko diaporama lehiaketa Buruntzaldeko gazteentzat

Urnietako Gazte Informazio puntuak II. Bidaien Diaporama Lehiaketa jarri du abian eskualdeko gazteen mugikortasuna sustatzeko helburuz. Modu honetan, gazteek azken urte hauetan bizi izan dituzten esperientzia interesgarrien berri emateko modua izango dute.

### Izena emateko epea:

#### urtarrilak 25

Izena emateko eta lanak aurkezteko epea urtarrilaren 25ean amaituko da. Ondorengo lekuetan egin daiteke:

- Lekaio kultur etxea, Urnieta.
- Urnietako Udalaren webgunea: [www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus)



Buruntzaldeko gazteei zuzenduta dago lehiaketa.

# Airearen kalitatea neurtzeko kabina

## Udarregi Ikastola ondoan jarriko dute laster

2017. urte amaieran iragarri zuten; Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzaren eskariz Zubieta gainean eraikitzen ari diren erraustegiak airearen kalitatean izan dezakeen eragina neurtzeko kabinak jarriko zituztela errausketaren zero gunea inguratzen duten udallerrietan; Usurbilen, Zubietan, Lasarte-Orian eta Andoainean.

Zubietan jarri zuten aipatu kabina hau, Usurbilen ordea, gaur arte ez. Usurbilgo Udalak egunotan kaleratu duen “Udalberri” hilabetekarian argitu dutenez, “hurrengo asteetan jarriko dute Udalak eskatutako baldintzen araberrako kabina, Udarregi Ikastolaren aldamenean”. Arratzain bide eta Estraperlo kaleen abiapuntuen artean (Agerialde ondoan) dagoen malda-txoan.

Kabina honen ezarpena atzeratu egin bada, Udalak jarritako baldintzengatik izan dela argitzen du Udalberrik.

### Herrian arnasten den airea

2017ko irailean jaso zuen Udalak erraustegia eraikitzeko lehen faseko obren esleipendun Ekohondakinek kabina instalatzeko baimen eskaera. Baina Udalaren esanetan, “kabina horiek ez dute erraustegitik isurtzen dena zuzenean neur-



Udalak aditzera eman duenez, “hurrengo asteetan jarriko dute eskatutako baldintzen araberrako kabina”. Udarregi Ikastolaren ondoan ipiniko dute.

### UDALA

**“Kabina horiek ez dute erraustegitik isurtzen dena zuzenean neurtuko, baizik eta herrian arnasten den airearen kalitatea neurtuko dute eta EAEko airearen kalitatea kontrolatzeko sarearen parte izango dira”**

tuko, baizik eta herrian arnasten den airearen kalitatea neurtuko dute eta EAEko airearen kalita-

tea kontrolatzeko sarearen parte izango dira”.

Udalak ordea, EAEkoa airearen kalitatea kontrolatzeko sarearen baitako hainbat estazioetan jada neurtzen diren parametro guztiak Usurbilgoak ere aztertzea ezinbestekotzat jotzen zuen. “Udalak halakorik eskatu izan ez balu, Usurbilen soilik Nox (Nitrogeno oxidoak) eta 10 mikrako material partikulatua baino ez ziren neurtuko”. Udalak argitzen duenez, “parametro horien iturri nagusia trafikoa izan ohi da eta, beraz, erraustegiagatik parametro hau soilik neurtzea ez zen nahikoa. 10 mikrako partikulak bezain

garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da, esate baterako, 2,5 mikrako partikulak neurtzea, geroz eta erreferentzia ugariago baitaude partikula txikiek osasunean duten eraginaz”, ingurumen saileko udal teknikari Ibon Goikoetxeak Udalberri adierazi dionez.

Udalak aurreikusi duenez, ikastola ondoan kokatuko duten estazioak BTEX edo petroleoaren deribatuetatik eratorritako konposatuak, 2,5 mikrako material partikulatu txikia eta sufre dioxidoa ere neurtuko ditu. “Arnasten den airearen parametro guztiak ezagutzea ezinezkoa bada ere, behintzat, araututa dauden airearen parametroak ezagutuko dira Usurbilen”.

Kabina martxan jartzean, gailu honek egingo dituen neurketak zuzenean jarraitu ahalko ditugu. Egun, Zubietan, Donostiako lurretan, errebote plazatik gertu, Urbitarte ibilbidean kokatua dagoena egiten ari den bezala. Zubietakoak, airearen kalitatearen indizea ona edo txarra den zehazten du, eta estazio horretako parametroen balioak zehazten dizkigu ingurumena.ejgv.euskadi.eus atariak. Bertan klikatuta egin dezakezue, Zubietako estazioaren eta EAE-n diren gainerakoen zuzeneko jarraipena.

## Adi GuraSOSen deialdiei

Hitzartu plana foru agintariaren esku uzteko GuraSOSek urtarrilaren 4an Donostiako Gipuzkoa plazan egin zuen ekitaldiaren baitan bi haurrek plazaratutako mezua ez

zuen eskaini Euskal Telebisitak eta honenbestez, “gure telebista publikoak informazio hau jasotzeko eskubidea urratu zigun”. Egoera honen aurrean, Youtubera igo du-

ten gai honi buruzko bideoa 200.000 lagunek ikusteko erronka bete nahi dute, eta horrekin, ETB-k egun horretan izandako audientzia gainditzea.

### Otsailean, manifestazioa

Gogoan izan bestalde, manifestazioa deitu du GuraSOSek otsaila amaierarako Donostian. Laster plazaratuko dute data zehatza.



# 21. Korrika apirilaren 12an eguerdiko 14:24 aldera igaroko da Usurbildik

**H**asi entrenatzen, Korrika badator! 21. edizio-rako atzera kontaketa martxan da jada. AEK-k plaza-ratu du 11 egunez, apirilaren 4tik 14ra Klika aldarriean ospatuko den euskararen aldeko lasterketa herriko ezagunaren ibilbidea. Noiz, ze ordutan eta nondik igaroko den, herriz herriko informazioarekin. Dakizuenez Garesen hasi eta Gasteizen izango du helmuga Korrikak. “Laster bidera aterako gara, mundura aterako gara, herriz herri igaroko gara. Martxan jartzen hasteko eginzazu KLIKA, pausuz pausu, gure erritmora!”, luzatu dute gonbita 21. Korrikaren antolatzailleek.

## Aginagatik Usurbil aldera

Euskal Herria alderik alde zeharkatuko duen 11 eguneko lasterketa, apirilaren 12an igaroko da gure ingurutik. Oraingoan, ostiralez eta arratsaldeko lehen orduan, 14:24 aldera. Noranzkoa aldatuko da edizio berri honetan. Duela bi urte, Lasarte-Oria aldetik sartu zen 20. Korrika Zubietara, gauez. Hiru hilabete barru, ostiral eguerdiz helduko da euskararen aldeko martxa, 14:24 aldera Oriotik! N-634 errepide-tik barrena helduko da Aginagara. Errepide beretik, Aginagatik Usurbila. Usurbilen ohi



Ohi bezala, Aginaga, Usurbil eta Zubietako kilometroen kudeaketa Etumeta AEK euskaltegiak egingo du.

## ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

**“Apirilaren 4tik 14ra  
Klika aldarriean  
ospatuko den 21.  
Korrika laguntzeko  
materiala salgai duzue  
jada Etumeta AEK  
euskaltegian”**

bezala, herri barruan, oraindik zehazteke dagoen ibilbidea osatuko du. Baina ohi bezala, aldaketarik ez bada behintzat, Santuenetik barrena Zubietara aldera joko du. Eta Zubietara zeharkatuta helduko da 15:42 inguruan, Lasarte-Oriara.

Honenbestez, ordubeteko ibilbide tartea osatuko du 21. Korrikak apirilaren 12an, Aginagan, Usurbilen eta Zu-

bietan.

Gure inguru honetan 21. Korrika zehazki nondik eta noiz igaroko den jakiteko pixkatxo bat itxaron beharko dugu oraindik. Herri mailan osatu ohi den antolakuntza taldeak bideratuko du gai hau, baita lekukoa nondik nora eta nork eramango duen.

## Korrika babesteko hamaika bide

Badator 21. Korrika! Ekimena laguntzeko hamaika bide izango ditugu hilabeteotan; Korrika egunean ekimenean bertan euskaraz bizi nahi dugula lasterka batean aldarrikatuz, aurretik bideratuko diren antolakuntza lanetan parte hartuz... Laguntza eskaintzeko bide gehiago ere badira.

## Materiala salgai

Bixerak, nikiak, puffak, kirola egiteko kamisetak, egunerokoan janzteko kamisetak... Apirilaren 4tik 14ra Klika aldarriean ospatuko den 21. Korrika laguntzeko materiala salgai duzue jada Etumeta AEK euskaltegian.

## Kilometroen erosketak

21. Korrika laguntzeko bideetako bat, kilometroak erostea duzue. Trukean, abiapuntutik helmugara, Garestik Gasteizera, Euskal Herrian barrena eskuz esku ibiliko den lekuko preziatua eraman ahalko duzue. “Familian, elkartean, lagunartean... kilometroen lekukoa eraman nahi baduzue, Korrika bulegoekin harremanetan jarri, kilometro zehatza hartzeko eta diru ekarpena egiteko. Kilometroak erreserbatzeko epea urtarrilaren 14an hasiko da”, ohartarazi dute Korrikaren antolatzailleek.

Ohi bezala, Aginaga, Usurbil eta Zubietako kilometroen kudeaketa Etumeta AEK euskaltegiak bideratuko du. Euskaltegiaren hartuemanetan jartzeko bideok dituzue:

Nagusia, 43

607 609 379

usurbil@aekeus

aekeus

munterri.blogspot.com.es

## Korrika Laguntzailea kanpaina

Materiala erosteaz gain, Korrika Laguntzaile ere izan zaitzekete. 12 euroko ekarpena eginda, Euskal Herriko hainbat saltokietan beharpenak izateko txartela, txartela erabiltzeko deskontuen katalogoa eta pina jasoko duzue. “12 euroren truke, garrantzitsuena lortuko duzu: AEKren euskal-

tegiei laguntzea. Horrez gain, pina eta txartelaren abantailak eskuratuko dituzu”.

Usurbilen Korrika Laguntzaile izateko tramitazioa Etumeta AEK euskaltegian bideratu ahalko duzue. Baita Internetez ere, korrika.eus atariaren bitartez.

Bildutako laguntza, “Eus-

kal Herri osoko gau-eskolei eta euskaltegiei laguntzeko erabili nahi dugu”. Eta hartara, Korrikaren helburu nagusietakoa bete nahi da: “euskalduntze-alfabetatzerako bitartekoak eskuratzea eta euskaltegien zein gau-eskolen lana sustatzea”.

Nabarmentzen dutenez,

oraindik euskaraz bizi ahal izateko bide luzea dago jorratzeko. “Tamalez, bide luzea dugu aurretik, eta administrazioei dagokienez, esan behar dugu euskaltegi eta gau-eskolei bideratzen dizkieten baliabideak ez direla nahikoak oraindik ere”. Informazio gehiago: korrika.eus

# OEIT: “Osasun-arriskua ofizialki onarturikoa baino askoz handiagoa izan daiteke”

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT) astero sare sozialen bidez artikulu ezberdinak argitaratzeari ekin zion urte amaieran. Eta horretan segitzen du osasun eta medikuntza arloko profesionalen ikerketa taldeak, abiatu berri dugun urte honetan ere. Egunitan, “errausketa eta dioxinak. Konpondu gabeko arazoa” izeneko idatzia argitaratu dute.

Ondorio benetan kezka-garria plazaratu dute beste behin. Erraustegiak eragin dezakeen “osasun-arriskua ofizialki onarturikoa baino askoz handiagoa izan daiteke, eta beraz, herritarren osasuna ez dago bermatuta”.

Egunitan argitaratu duten dioxinen isurketaren inguruko idatziko baieztapen hau, duela hamarkada askotatik argitaratu izan diren mundu mailako ikerketa ezberdinen datuetan oinarritzen dute.

## Neurketa ofizialek adierazitakoa baino 460-1290 aldiz altuagoko dioxina isurketak

Adibide gisa jartzen dute, iaz Herbeheretako azken belau-naldiko edo batzuk errauskailu “moderno” deitzen dioten horietako baten inguruan eginiko ikerketa batek zioena. “Honek dio isurketak modu jarraian monitorizatuz gero neurturiko dioxinen isurketa zifrak ofizial-



Ondorio kezka-garriak plazaratu ditu OEIT elkarteak. Argazkia, artxibokoa.

### OEIT

**“Gaur egun egiten diren kontrolen arabera ez dago jakiterik zer dioxina kopuru isurtzen duten erraustegiek martxan dauden denboraren %99,6an”**

ki jakinarazitakoak baino 460-1290 aldiz altuagoak direla”. Urtebete lehenago errauskailu berean eginiko beste ikerketa batek, “giza-kontsumorako legezkoak ez diren dioxina mailak atzeman zituen errauskailu baten 2 kilometroko erradioan ekoiztako arrautzetan; inguruko belardietan ere dioxina maila altuak ziren... Belarretan topaturiko dioxinak eta tximiniatik isuritakoak azpitalde berekoak dira, toxikotasunaren

jatorria errauskailua dela frogatuz”.

Belgikan 1998an eginiko beste ikerketa batek agerian jarri zuen OEIT-k adierazi duenez, “dioxinen isurketaren estimazioa 15 eguneko etenik gabeko monitorizazioan oinarrituz gero, ohiko neurketa puntuetan oinarrituta baino 30-50 aldiz handiagoa zela”.

## Denbora osoaren %0,4an isurtzen dena baino ez da kontrolatzen

Euskal Herrira etorrita, Zabalgarbiko erraustegia jarri dute adibide gisa. “Adierazgarria da Zabalgarbik 10 urtean 35 geldialdi eta bir-hasiera izan dituela. Datu hauek adierazten digutenez, isuritako dioxina kopuru erreala ofizialki jakinarazitakoa baino askoz ere handiagoa dela pentsatzeko arrazoi sendoak daude”.

OEIT-tik argitzen dutenez,

“gaur egun egiten diren kontrolen arabera ez dago jakiterik zer dioxina kopuru isurtzen duten erraustegiek martxan dauden denboraren %99,6an”.

Bai Zabalgarbiko zein Zubieta gainean eraikitzen ari diren erraustegien Ingurumen Baimen Bateratuak “dioxinen isurpenaren kontrola hiru hilabetetik behin egin behar dela agintzen dute, 6 eta 8 ordu arteko lagin bilketa burutuz”. Baina neurketok egin aurretik, “errausketa planta jakinaren gainean jartzen da. Ezaguna da neurketak aurreabisurik gabe egiten direnean emaitzak oso ezberdinak izan ohi direla. Errauskailua martxan dagoen denbora totalaren %0,4 estaltzen duten neurketetan oinarritutako estimazioek-Foru Aldundiko agintarien ustez kontrol hertsia lirakeenak-nekez adierazi dezakete zein den isuritako dioxina kopuru erreala”.

## Erraustegi “modernoez”

Erraustegia defendatzen dutenek erraustegi modernotzat jotzen dituztenak gutxiago kutsatzen dutela adierazi izan dute, baina OEIT-tik adi egoteko deia egin dute. “Ez Alemania ezta Europako iparraldeko herrialdeetan errausketaren aurkako ez aldeko azterketa epidemiologikorik ez dugu aurkitu. Baina daturik ez egoteak ez du esan nahi hondakinen errausketa kaltegarria ez denik!”.

## Datu kezka-garriaren ikerketa ugari

### Iturria: ASWORTH DC 2014 “Waste incineration and adverse birth and neonatal outcomes: a systematic review”

“14 ikerketen berrikuspen sistematiko honetan hondakinen errausketak jaioberriengan duen eragina aztertzen da. Zenbait ikerketetan ez dute arriskurik atzeman baina beste batzuetan ondorengo arri-

kuen gorakada atzeman da: sortzetiko malformazioak %3, erbi-ezpaina %30 eta giltzurrunetako displasia %30”.

### Iturria: Candela S, 2013: “Air pollution from incinerators and reproductive outcomes: a multisite study. PROYECTO MONITER. ITALIA”

“Zaborren errausketak 8 insta-

lazioen inguruko 4 kilometroko perimetroan fetuaren garapenean daukan eragina aztertzen du. Lan honetan diote erditze goiztiarrak (<37 aste) %42an ugaritzen direla eta erditze oso goiztiarrak (<32 aste) bikoiztu egiten direla. Esposizioa PM10 partikulen dispersio-eredu batekin neurtu zen”.

### Iturria: Candela S, 2015 “Exposu-

### re to emissions from municipal solid waste incinerators and miscarriages: a multisite study of the MONITORE Project”.

“2002-06 urteen artean errauskailu baten ondoko 4 kilometroko erradio batean abortuen %45eko gorakada neurtu zen aurretik aborturik eduki ez zuten 15 eta 49 urteen arteko adina zeukaten emakumeengan”.

# noaua euskararen aterpe



*Bazkideok egiten dugu posible*

Astekaria, noaua.eus Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN ZAITEZ!**  
eta opari eder hau eskuratu!



Bazkidetza: urtean, 40 euro. Bordaberri 3. USURBIL 943 360 321 elkarte@noaua.eus



## Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

**Albisteak, agenda eta askoz gehiago Noaua! app berrian. Deskargatu doan eta jaso herriko azken berriak mugikorrean.**

Eskuratzeko:







[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

## Telmo Esnal: “Ahoz ahokoak oso ondo funtzionatu du”

**E**z omen dago ahoz ahokoak baino promozio hobea. Dantza filma San Tomas egunean iritsi zen zinema aretoetara eta karteleran da oraindik. Arrakasta izan duen seinale. Urtarrilaren 27an Sutegin ikus ahal izango da. Aitzakia honekin, Telmo Esnal zuzendariarengana jo dugu.

**NOAUA! Zinemaren ohiko koordenatetik kanpo dago Dantza. Zaila egiten zaigu filma azaltzea. Zer kontatu nahi izan duzu?**

**Telmo Esnal.** Herri imaginario baten historia kontatzen du. Lurra lantzen duen herri bat, landutakoa babesten duena, babestuz gero fruitua dakarrelako... Kasu honetan, sagarra da gure fruitua. Sagarrarekin sagardoa egiten da eta behin sagardoa egina dagoenean festa dator. Eta festetan harreman pertsonalak sortzen dira... Juan Antonio Urbeltzek urtetan landu dituen hipotesiak bereganatu egin ditut. Urbeltzen diskurtsoan eta sinbologian murgildu naiz eta horrekin guztiarekin istorio bat osatu dut; herri nekazari baten istorio bat.

**Filman jaso duzun istorioa unitertsala dela esan izan duzu. Dударik ez dut horretan. Ez-**



Telmo Esnalek zuzendu du Dantza filma. Urtarrilaren 27an Sutegin ikus ahal izango dugu. Sarrerak Lizardin eta NOAUAIn dituzue eskuragarri.

### TELMO ESNAL

**“Dantzak bat bestearen atzetik datoz, suelto, baina aurrera egin ahala filmak forma bat hartzen du eta zerbait kontatzen hasten da”**

pata-dantzak eta soka-dantzak gure dantzatzat hartzen ditugu baina antzekoak topatuko dituzu Europan eta Aisian. Niri mundu bat zabaldu zitzaidan Urbeltzen diskurtsoa ezagutu nuenean. Eta Urbeltzi ikasitakoarekin istorio bat osatzen saiatu naiz. Bisualki potentzialtasun handia ikusten nion.

**Dantza da mintzaira nagusi eta bakarra. Dialogorik ez da.**

Dantza hizkuntza bat da bere horretan. Orain arte dantzak ikusi izan ditugu baina elkar lotu gabe: Bizkaikoak bate-tik, Gipuzkoakoak bestetik, soka-dantza, ezpata-dantza... Baina ez zegoen loturarik. Ni saiatu naiz dantzaz dantza istorio bat osatzen.

**Lengoaia zinematografikoa abstraktu samarra izanik ere, filmak logika narratibo bat jarraitzen du.**

Dantzak bat bestearen atzetik datoz, suelto, baina aurrera egin ahala filmak forma bat hartzen du eta zerbait kontatzen hasten da. Ez daude dantza denak. Nik kontatu nahi nuenerako dantza jakin batzuk hautatu ditut.

**Loreak, Amama, Handia... Eus-**

karaz egin diren azken ekoizpenek oihartzun handia izan dute eta kritika onak jaso dituzte. Baita hemendik kanpo ere. Oreina eta Dantza pelikula kontestu horretan plazaratu dira. Besteek erdietsi duten arrakasta, ona ala txarra izan al da zuen ekoizpenentzat?

Nik ez dut horrela bizi. Eta Dantza bezalako proiektu batekin are gutxiago. Banekien zertan nengibilen, nahikoa abstraktoa zela dena. Pentsa, ni egitasmo honekin hasi nintzenean Handia proiektua ez zen existitzen. Bien bitartean, Amama eta Loreak egin dira...

Uste dut ona dela gertatzen ari dena. Urte dezente darabagu zinema egiten hemen. Eta pelikula jarraikortasun batekin egin ahala, jende bat trebatzen ari da. Eskarmentua hartzen ari gara eta horrek auzardia ematen dizu.

Bestetik, lehen aurreiritzi asko zituzten Estatu mailan gure zinemarekiko eta baten batek onartu egin zidan gainera. Loreak Zinemaldiaren sail ofizialean ikusi zutenean ordea, jende bat beste modu batean hasi zen hemengo zinema epaitzen. Gutxinaka oihartzun handiagoa lortzen ari gara hemendik kanpo. Eta hori beti da ona.

## “Jende pila bat joaten ari da zinema aretoetara”


**NOAUA! 2014. urtean plazaratu zenuten film honen lehen trailerra. Estreinaldia zergatik atzeratu da hainbeste?**

**Telmo Esnal.** Finantziazioarena asko luzatu zen. Hiru urtez egon ginen kinka larrian. Bestetik, dantzariak ez dira profesionalak eta entseguak eta grabazioak asteburuetan egin beharko genituela bagenekien. Gure aurreikuspenen arabera, urtebete luzatuko zen grabazioa. Eta horrela izan da.

**Dantza San Tomas egunean iritsi zen zinema areto komertzialetara. Zer nolako harrera izan du?**

Oso ona. Ikusi da ahoz ahokoak oso ondo funtzionatu duela. Oso zaila izan zen zinema aretoetan muturra sartzea. Hasieratik pentsatu genuen gabonak garai ona izan zitekeela baina ahaztuta genuen Amerikako Estatu Batuetatik etorri ohi den produkzioa handia izaten dela data horietan. Karteleran

toki bat egitea oso konplikatu izan zen. Donostiako Trueban hasi ziren ematen. Aretoa bete egiten zen eta Principe aretora pasa zuten gero. Principen ere aretoa lepo eta Antigu Berrin programatzen hasi ziren. Donostian bi zinema aretoetan dago orain. Jende pila bat joaten ari da. Eta asko hunkituta ateratzen dira. Politika da hori. Egiten duguna jendeak ikusteko izaten da. Eta jendeak bere egiten badu, ba pentsa.



“Jende asko hunkituta ateratzen da zinema aretotik”.

# “Txalaparta kirikoketatik sortu bazen jolas moduan, dantza ere erritmo batetik etorriko zen akaso”

**NOAUA! Dantzarien erritmoak gidatzen du filma. Iruditeria ere oso garrantzitsua da. Sinboloak ere unibertsalak direla esan al daiteke?**

**Telmo Esnal.** Alderantziz, ikonografia oso gurea da. Leitzako plazan ageri diren faldoiak sagarrari lotuta daude. Koldobika Jauregik landu du filmeko iruditeria eta sagarraren kultura hartu du kontuan. Sagar loreak agertzen dira toki askotan. Egiten dituen jantzietan apaingarri pila bat daude eta denak daude sagarrarekin lotuta. Koldobika Jauregiren lana liburu bat osatzeko modukoa da.



Telmo Esnalek Donostiako Irusoin estudioan hartu gintuen. Bertan Agur Etxebeste filmaren muntaia-lana egiten dira egunotan. Gauzak ez badira okertzen, udazkenean egingo dute estreinaldia.

## Atenporala da filma, ezta?

Dantzaren jatorria ez dago kokatzerik. Maiz galdetu izan diot nire buruari: zer da lehenago, erritmoa ala dantza? Txalaparta kirikoketatik sortu bazen jolas moduan, ba dantza ere akaso erritmo batetik etorriko zen.

**Lehen piezak hori irudikatzen du. Lurra lantzen ari direla hasiko dira lehen pausoak ematen.**

Lurra landuz erritmo bat sortuko dute eta erritmo horretan jolasean hasi eta dantzan amaituko dute. Atenporala

**TELMO ESNAL**  
**“Koldobika Jauregik landu du filmeko iruditeria eta sagarraren kultura hartu du kontuan. Sagar loreak agertzen dira toki askotan”**

da kontakizuna baina filmaren amaierako pasarteak XVI-II-XIX. mendekoak direla badakigu eta horregatik kokatu

ditugu garai hartako espazio batean.

Zentzu horretan, denetariko dantzak daude. Batzuk aspaldikoak eta besteak berri samarrak. Igartubeiti baserriko ‘Almute’ dantzak adibidez 15 urte izango ditu. Ez gehiago. Atenporala da baina pelikularen baitan bada bilakaera moduko bat. Lokalizazioetan, jantzietan eta atrezzoetan bada bilakaera bat. Soiltasunetik abiatzen da filma baina gero eta aberatsagoa izango da

eskaintza.

**Hemendik kanpo, nola funtzionatuko ote du? Jakinmin hori izango duzu, ezta?**

Zinemaldian mexikar batzuk egon ziren eta txundituta geratu ziren. Dena den, oraingoz ez dugu asko mugitu hemendik kanpo. Nire esperientziagatik iruditzen zait interesgarria suertatu daitekeela. Dena den, filma bitxia da. Ez da ohiko lan bat. Beste bide batzuk jarraitu beharko ditu eta horretan gaude.

## “Ez dira aktoreak baina dantzariak ere antzeztu egiten dute”

**NOAUA! Dantzariak dira filmeko protagonistak. Ez dago aktorerik.**

**Telmo Esnal.** Dantza egiteko modu asko dago baina pelikulan agertzen direnak Juan Antonio Urbeltzen kordakoak dira denak. Dantzakera horregatik aukeratu genituen. Hasi nintzenez, paper berezi batzuk izendatuta nituen eta dantzariak ikusi ahala egin

nuen aukeraketa.

**Zuzendari lana nolakoa izan da? Uste baino zailagoa?**

Ez dira aktoreak baina ohol-tza gainera igotzen direnean, dantzariak ere antzeztu egiten dute. Beren gorputzarekin antzezten dute. Indar gehiago jarri genuen aurpegiaren adierazkortasunean baina ez zen oso konplikatu izan. Zorte

handia izan dut, aukeratutako dantzari denek eman beharrekoa eman didatelako.

**Sutegira hurbiltzen diren asko Orbeldi Dantza Taldeko kideak ikustera gerturatuko dira. Leitzako plazan ageri dira Orbeldikoak, ospakizun betean.**

Estilo konkretu bat behar genuen film honetarako eta Juan

Antonio Urbeltzen inguruan dabilzan dantzariak behar genituen. Leitzako zatia grabatzeko jende asko behar genuen. Herri bat dantzan ikusi nahi nuelako. Haurrak, gazteak, helduak... Adin guztietako dantzariak behar genituen. Eta horrela egin genuen. Zer dantzatu behar zuten erakutsi egin zitzairen. Oso polita geratu zen.

# Joxan Artze, urtebete geroago ere gugan da

L arunbatean bete zen hil zeneko lehen mendurrena, eta ondoko artikulu honek argi erakusten duenez, guregan segitzen du sortzaile usurbildar handiak.

## Erakusketa eta erregistro liburua Sutegin

Joxan Artze hil zeneko urtea bete berri den honetan, omenaldi gisara, Sutegiko erakusketa aretoko erakuslehoan ikusgai izango dugu aste amaierara arte, Usurbilgoaren sortze lanen bilduma zabala. Baita berari eta bere lanei lotuta plazaratu diren hainbat lan, edota duela urtebete Artzeren heriotzaren berri eman zuten argitalpenak.

Goian, liburutegian berriz, “Joxan Artze in memoriam (1939-2018)” erregistro liburua aurkituko duzue. “Bere omenez hitz batzuk idatzi edo irudiren bat marraztu nahi?” Sutegei kultur etxean izango dugu horretarako aukera, aste osoan zehar.

Bi ekimenekin oroitu eta omenduko du Artze Usurbilgo Udalak, udal liburutegiaren bidez.

## Bi sortze lan Potxoenean

Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, bi sortze lan eseki ditu, “kultura eta herri-mugimenduen topagunean”, Potxoenean alegia, “gure ondare kulturala ezagutzera emateko”. Batetik, Alejandro Tapiaren 1987ko “Txokoalde gaez” margolana. Eta bestetik, Artze hil berritan, Juan Gorritik bere omenez sortu eta Udalarari oparituriko artelana.

## Erakunde eta kontzertuen bidez omenduko dute

Bere heriotzaren lehen urtemuga egun honen harira, Joxan Artze omentzeko tartea hartuko da egunotan. Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundia,



Artzeren sormen lanen bilduma zabala ikusgai ipini dute Sutegiko erakusketa aretoan.

## OMENALDIAK

**“Heriotzaren lehen urtemugaren harira, Joxan Artzeren aldeko ekitaldiak ugaltu egin dira. Gipuzkoako Foru Aldundia sortzaile usurbildarra omentzekoa zen astearte honetan”**

asteartean, urtarrilaren 15ean, Diputazioaren egoitzan bertan sortzaile usurbildarra omentzekoa zen.

Ekitaldi gehiago ere izango da. Izar & Star egitasmoak aurreko astean Bilboko Kafe Antzokian egin bezala, urtarrilaren 26an Donostiako Dabadaban Artze omenduko du. “Euskal Herriak sorturiko maila altuko pop-rock-aren aberastasun eta dibertsitatea ikustarazteko asmoz” sortu zuten 2011. urtean Izar & Star egitasmoa. Ibilbide azpimarragarriaren talde sorta bat bildu eta “haien abestiekin batera beste nazio mailako proiektzioa duen talde esanguratsu, disko edo

genero baten bir-interpretazioa egiten du ikuspuntu propio bat erabiliz”.

Oraingoan, Bas(h)oan (Joseba Irazoki, Beñat eta Julen Achiary), Akauzauzte, Amoran-te eta Ibon RG batu dira. Joxan Artze omentzeko ekitaldia sortu dute, bere heriotzaren lehen urtemuga honen bueltan. Donostiako Dabadabako urtarrilaren 26ko 19:00etako saiorako sarre-rak aurrez 7 eurotan eskuratu ahalko dira, egunean bertan 10 eurotan. Informazio gehiago: dabadabass.com

## Beka deialdia

Usurbilgo sortzailearen izena daraman ikerketa beka sortuko dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHUko Mikel Laboa Katedrak. XX. mendeko euskal poetak eta idazleak hizpide izango dituen euskal poesiari eta literaturari buruzko doktorego tesi bat egiteko kontratua formalizatuko dute.

Hautatutako pertsonari au-

rre kontratu bat egingo zaio, beste hiru urtez luzagarria izango dena. Urte honetatik hasita, Foru Aldundiak 22.000 euro bideratuko ditu urtero, bai aurten baita beste hiru urtez ikerketa beka honetara, hautatua izan den pertsonak “doktorego tesia EHUko sail edo institutu batean egin dezan”.

Sustatzaileek aurreratu dutenez, “proposamenak ebaluatzeko orduan, alderdi hauek balioetsiko dira: proiektuaren eta metodologiaren helburua eta interesa, ikasketa-espeditatea, azterketak berekin eramatea Foru Aldundiaren ondarea erabil eta aintzat har dadila, eta euskaraz egin dadila”.

# Joxan Artzeren liburu eta artxibo pertsonalak, Foru Aldundiaren esku

Joxan Artzeren liburute-giaren funtsak, liburu zein artxibo pertsonalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ditu familiak.

Koldo Mitxelena Kulturuneak Gipuzkoako sortzaileen ondarea izateko interes nabarmena du, “haien obra, babestu, hedatu eta sakon aztertzeke”. Artzeren liburutegi eta artxibo pertsonalarekin ere gauza bera egiteko konpromisoa hartu dute. Foru Aldundiaren zereginaz izango da aurrerantz, usurbildar sortzailearen obra babestu eta hedatzea.

## Laneko paperak

“Eskaintako dokumentuek babestu beharreko ondare bibliografiko bat osatzen dute; izan ere, liburuak idazlearen intereseko gaien erakusgarri dira, eta artxibo pertsonala, berriz, jarduera intelektual bizi baten eta azken arte izan zuten lan egiteko metodo bereziaren adierazgarri. Laneko paper horietan ageri dira gerora argitaratu zituen obra ugariaren aztarnak; batik bat, poesia esperimentalari eta abangoardiakoari dagozkionak.

Bildumaren osagarri diren



Argazkian, Karmen Esteban Joxan Artzeren alarguna eta Foru Aldundiko zein Mikel Laboa Katedrako ordezkariak.

## JOXAN ARTZEREN ONDAREA

**Koldo Mitxelena Kulturuneak Gipuzkoako sortzaileen ondarea izateko interes nabarmena du, “haien obra, babestu, hedatu eta sakon aztertzeke”**

objektuek artistaren lan poetiko eta musikalaren eszena-

ratzea inspiratzen dute eta testuinguruan jartzen; haren obratik ezin bereiz daitezkeen piezak dira (Oihana auhenka, Omenaldia Udaregiri...), Aldunditik berri eman dutenez.

## Ondare askoz aberatsagoa

Koldo Mitxelenak lehendik zuten Artzeren lanen bilduma aberastera dator orain dohaintza hau. “Liburutegian zeuden lehendik ere Artze-

ren lanik esanguratsuenak; zehazki, haren idatziak eta haren figurari buruzko azterlan kritikoak biltzen dituzten hirurogeita hamar argitalpenetik gora. Joxean Artzek bere familiari berariaz adierazi zion nahia zaintzeko, eta haren alargun Karmen Estebanen erabakiari esker, aparteko ondare hau gehitu zaio funtsari”, Aldunditik azpimarratu dutenez.

## Juan Gorritik Joxan Artzeren omenez eginiko artelana

Potxoenean bi koadro eskegi dituzte. Batek Alejandro Tapiaren sinadura darama. “Txokoalde gauez” du izenburu margolanak eta 1987an egin izan zen.

Potxoenean ikusgai ipini duten beste artelana Juan Gorritirena da. Artze hil berritan, Gorritik bere omenez sortu eta Usurbilgo Udalarari oparitutakoa.



Artze hil berritan egin zuten ezkerreko koadroa Gorritik. Eskubitara, Alejandro Tapiaren margolan bat. Biak Potxoenean ipini berri dituzte ikusgai.



## “Ilusioz eta gogotsu sartu gara”

Taldea desegitear zela, mendizaleen bilgunea bizirik mantentzeko hautua egin zuten. Usurbil Andatza gabe geratzear zela kudeatzaile talde berria osatu dute. Dinamika indartu eta eskaintza zabaltzeko asmotan da. Gogotsu eta ilusioz abiatu dute etapa berri hau, lerrootan elkarrizketatu ditugun Garazi Artolak eta Amaia Zubelzuek NOAUA!ri adierazi diotenez.



Talde berria du Andatza M.K.T.k. Argazkian dira aurreko zuzendaritza taldekoak eta kide berriak.

**NOAUA! Andatza M.K.T. desegitear zela jaso dugu azken asteotan, segida izango zuenaren berri. Zer gertatu da?**

**Garazi Artola:** Taldea desegingo zela bagenekien. Gure artean komentatzen genuen, ondo legokeela taldea hartzea, ez genuelako Andatza galtzea nahi. Baina noski, guk biok ezin genuen dena kudeatu. Hortxe geratu zen kontua duela hilabete batzuk. Bapatean gure aitak (Joxepo Artola) esaten zigun, ez zuela taldea desegitea nahi. Aitari talde honek asko eman dio. DYArekin ere asko lagundu ziguten, lokala partekatu genuela eta. Komentatu zidan bazekiela laguntzeko prest zen jendea bazegoela eta animatzeko. Amaia deitu nion eta berak baietz esan zidan. Hortik jende gehiago biltzen joan gara.

**GARAZI ARTOLA**  
*“Taldea desegingo zela bagenekien. Gure artean komentatzen genuen, ondo legokeela taldea hartzea, ez genuelako Andatza galtzea nahi. Amaia Zubelzuri deitu nion eta berak baietz esan zidan. Gero jende gehiago biltzen joan gara”*

**Amaia Zubelzu:** Bi izan baginen talde honen ardura ez genuen gure gain hartuko, baina talde bat sortzen denean iniziatiba gehiago hartzen duzu.

**Taldea zenbaten artean osatu**

**duzue?**

**G.A.:** Sei bat laguneren artean. Bada ekintza zehatzak antolatzeke prest agertu den jendea ere.

**A.Z.:** Orain arteko zuzendaritzako kideek ere laguntzeko prest izango direla adierazi digute. Alde horretatik babes handia dugu, asko ari dira laguntzen eta eskertzekoa da.

**Taldearen gidaritza hartu berrian, lehen egunok nolakoak izaten ari dira?**

**A.Z.:** Hilabete hasieratik, antolatzen eta hemendik aurrera zer egingo dugun erabakitzen hasi berriak gara. Lehenago, aurreko zuzendaritza taldearekin bildu izan gara, beraiek nola antolatzen ziren ezagutzeko.

**Ostegunetan, egoitzan Deialdia, bereziki gazteei.**

**G.A.:** Gainera gazteei zuzendutako ekintzak sortu nahi ditugu. Haiek ere etortzeko, guretzat askoz lasaigarriagoa litzateke beraiek ere federatu txartelak izatea. Baita bere kabuz mendian ibili nahi bade.

**Aseguru txartela tramitatu nahi duenak zer egin behar du?**

**A.Z.:** Izen emateko fitxak andatza.com atarian ditugu. Fitxak web orria bertan edo lokalean eskuragarri izango dira. Ostegunetan 19:00etan hemen izango gara. Behar duenak edozein momentutan etorri edo web orritik deskargatu. Fitxak bete eta ordainketak egin. Guk fitxa jasotzean, hemen tramitazioa bideratzen dugu.

**Modalitate eta adin tarte ezberdinei egokituriko txartela da.**

**A.Z.:** Andatzari ekintzak antolatzen laguntzeko 10 euroko ekarpena egiten zaio, beste guztia tramitaziora bideratzen da. Normalean, Euskal Herrian ibiltzeko eta Pirinioetan ibiltzeko eskuratzen du jendeak txartela., baita mendiko btt-an aritzeko ere. Baina aukera eta abantaila askoz gehiago eskaintzen ditu.

## “Jende gaztea federatu txartela egitera animatu nahi dugu”

**NOAUA! Eskuardean duzuen lanetako bat, 2019rako mendiko federatu txartelen tramitazioa da. Horretan ariko zarete?**

**Amaia Zubelzu:** Orain arte nire aitak egiten zituen fitxa hauek. Edozein zalantza izanez gero, horiek argitzeke erraztasun gehien nik nituenez, neronek hartu dut

ardura hau. 180 laguneren izenak hartuak ditugu jada. Orain itxaroten ari gara jendeak noiz erantzuten duen, ordainketak noiz egingo dituen... Eta horren arabera tramitatu ditugu fitxak.

**165 txartel izan ziren ia. Taldea desegitear egon dela jakinik, harrিতuta zaudete**

**eman den igoeragatik?**

**Garazi Artola:** Gutxiago egongo zirela espero nuen, jendeak jada beste mendi elkarrekin bidez tramitatu izango zuela espero genuen. Baina agian jende gehiago animatzen ari da orain mendira. Hala espero eta sinistu nahi dugu. Nahi dugu baita, gazte jendea federatu txartela

egitera animatzea, askotan ez baikara jabetzen mendira joateak duen arriskuaz.

**A.Z.:** Mendira urtean behin bakarrik joaten den pertsona bada, txartela tramitatzeko agian ez dio merezi. Baina mendira joateko ohitura duenarentzat gomendagarria da. Beste lasaitasun batekin zoaz mendira.



# “Bestelako ekintzak ere txertatu nahi ditugu, jende berri gehiago erakartzeko”

**NOAUA!** Hasiera batean iragarri zen talde hau osatu zenuela, federatu txartelak tramitatzeko. Baina ekintzak ere sustatu nahi dituzue. Aurreko taldearen dinamikari segida eman nahi diozue, eskaintza berri...?

**Garazi Artola:** Dena batera. Segida eman nahi diogu, baina buelta bat ere eman nahi diogu, berrikuntzak txertatu. Lehen egiten ziren ekintzak mantenduko ditugu. Ibilbide berriak sartuko ditugu. Bestelako ekintzak ere txertatu nahi ditugu, jende berri gehiago erakartzeko. Ez gazte jendea bakarrik, jende berria baita. Badakigu jende asko dagoela bere kontutik mendira joaten dena edo ibilaldiak egitea gustuko dituen eta inoiz ez dela Andatza mendi elkarteko ekintzetara etorri, ezjakintasunagatik edo lotura hori izan ez dutelako. Eskaintza zabaldu nahi dugu. Sare sozialak ere gehiago mugitu nahi ditugu eta ia jendearengana gehiago heltzen garen. Herriko kirol ekintzak prestatzen dituzten beste taldeekin hartuemanetan jarri nahi dugu. Eta denok batera ia zerbait egitea lortzen dugun aurten.

**Zuen jardun eremua zabaldu eta jende berria erakarri nahi duzue beraz.**

**Amaia Zubelzu:** Oso profil ezberdinetako jendea gaude, talde polita osatu da.

**G.A.:** Belaunaldi ezberdinetako jendea gaude. Denetik pixka bat dakigu. Kirol jarduera ezberdinak egiten ditugun kideak gaude; bizikletan ibiltzen direnak, mendian korrika, mendian oinez lasai ibiltzea gustuko dutenak, beste batzuk mendia azkar igo, eta jaisten dutenak, buelta luzekoak... Denetarik dugu. Profil horretako jendea izanda, ekintza



Urteberri egunez, Andatza gainean bildu zen ondoko koadrila. Argazkia: Iñaki Bengoetxea.

## AMAIA ZUBELZU

**“Momentuz zuzendaritza taldean sei lagun gaude, baina beste norbaitek etorri nahiko balu ongi etorria izango da”**

ezberdinak eskaini ahalko ditugu. Eta askoz ere aberasgarriagoa izango da.

**Zuen zaletasunen islada izango da taldea?**

**G.A.:** Bai. Halere, beste mota bateko ekintzak egiten dituen jendea, ongi etorria izango da. Laguntzeko edo ikastaroren bat antolatzeke prest dagoena ongi etorria izango da. Nahi duguna hori baita, ekintza ezberdinak egin eta denok ezagutu dezagula dena.

**A.Z.:** Momentuz zuzendaritza taldean sei lagun gaude, baina beste norbaitek etorri nahiko balu baita ongi etorria izango da.

**G.A.:** Hilabeteroko ekintzak antolatzea ez da hainbesteko lana, baina bakoitzak hilabete bat hartzeko adina jende baldin badugu, lan karga izugarri jaisten da. Aurreko taldean, lau lagunek dena egiten amai-

tu zuten. Guk jendea badugu ekintzak antolatzeke prest dagoena.

**Ekintzak zenbatero antolatu asmo dituzue?**

**G.A.:** Hilabeteroko bi ekintza antolatzeke asmoa dugu oraingoz. Andatza Egunari ere garrantzia eman nahi diogu. Santuenekoek prestatu zuten iaz. Beraiekin elkarlanean aritu nahi dugu aurten, Andatza Eguna indartu nahi dugu.

**A.Z.:** Urtarrilean ez dugu ezer antolatzeke asmorik, goizegi iruditzen baitzaigu. Baina otsailetik aurrera hilabeteroko martxa hori hartzeko asmoa dugu. Probatzen joatea izango da kontua, jendeak nola erantzutean duen ikustea. Eta horren arabera, ikusten joango gara ze ekintza errepikatu, kendu, ekintzen maiztasuna...

**Laguntza jasotzeko prest Talde hau beraz, gelditzeko etorri da?**

**G.A.:** Ilusioz eta gogotsu sartu gara eta geratzeko asmotan gabilta. Jendeari eskatu nahi diogu gu laguntzeko, animatzeko, taldea ez dugula galtzea nahi.

**A.Z.:** Kontua da gustuko dugun hori egitea eta besteei hori transmititzea. Eta taldean baldin bada, hobeto.

## Proposamenak egiteko deia

2019ko dinamika diseinatzen hasia da Andatza M.K.T.-ren baitan osatu den zuzendaritza talde berria. Baina jendearen ekarpenez osatu nahi dute urteko eskaintza. “Zuen laguntza eske gatoz! Zuen iritziak, proposamenak, nahiak... entzun nahi ditugu aurtengo egutegia osatzeko”, adierazi dute Andatzatik. Aurreratu dutenez, “jada iritsi zaizkigu proposamen oso tentagarri batzuk eta ahal bezain laster martxan jarriko ditugu. Baina seguru baduzuela mendiarekin zerikusia duen edozein ekintza egiteko gogo. Kontaiguzue eta guk aurrera eramaten lagunduko dizuegu!”. Bide batez, kide berriak ere ongi etorriak izango direla gogorazten digute. “Geroz eta gehiago bagara, hobeto pasako dugu!”.

## Informazio gehiagorako...

Jendaurreko ordutegia eta taldearen bilerak: ostegunero 19:00etan, udaletxe ondoko garai bateko DYArena ere bazen lokalean.

Web orria: [andatza.com](http://andatza.com)  
Facebook: [facebook.com/andatza.taldea](https://facebook.com/andatza.taldea)

## Andatzari buruzko hitzaldia

“Andatzako garai bateko okupazioaren azterketa eta interpretazio arkeologikoa” hitzaldia antolatu du Usurbilgo Udalak urtarrilaren 22rako 19:00etan Potxoenean. “Andatza mendigunearen inguruko okupazioari buruzko azterketa eta interpretazio arkeologikoa egiten ari dira eta aurten X.Prospekzio kanpaina egin dute. Bertan egindako lanak eta lortutako emaitzak azaltzera datoz”, Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Arkeologia Saileko kide Manu Ceberio Rodriguez eta Izaro Quevedo Semperena.

# Deialdi ugari Aginagan

**A**ginagatik jaso ditugun deialdi, hitzordu eta albisteak bildu ditugu ondoko artikuluan. Aginaga hizpide izango da eta egunotan, Eliza Zaharreko kontzertu gauarengatik, Euskal Herriko Mus Txapelketagatik edota Euskal Telebistan agertuko delako.

## “Herri Txiki, Infernu Handi”

Heldu da grabatu zutena ikusteko unea. Aginaga barrutik ezagutuko du Euskal Herriak igande gau honetan. Urtarrilaren 20an, gaueko 22:00etan hasita, azaroa eta abendua artean bertan grabaturiko saioa erakutsiko du Euskal Telebistako “Herri Txiki, Infernu Handi” saioak. Gogoan izan, Mikel Pagadik eta Zuhaitz Gurrutxagak hainbat aginagarren lekukotzak batu zituzten.

## Euskal Herriko Mus

### Txapelketako sailkatze proba

Abian da 11. Euskal Herriko Mus Txapelketa. Herrietako saioak jokatzen ari dira asteo-



Igande honetan eskainiko dute Aginagan grabaturiko “Herri Txiki, Infernu Handi” programa.

tan. Gure inguruan bi hitzordu iragarri dira; saio bana, Usurbilen eta Aginagan. Aginagako zehaztua dago jada; urtarrilaren 25ean jokatuko da, 22:00etan hasita Atarialde Elkartearen. Usurbilgoa aurrerago. Izen-ematea, egunean bertan 21:30-22:00 artean.

Otsailaren 23an jokatuko dira herrialdeen mailako txapelketak Gipuzkoako Zaldibian. Fase horretarako sailkatze probak dira honenbestez, asteo-

tan herriz herri ospatzen ari direnak. Parte hartu nahi duen mus jokalaria bikoteak 20 euro ordaindu beharko ditu. Antolakuntzak, Euskal Herriko Mus Federazioak iragarri duenez, 50.000 euro baino gehiago banatuko dira saritan. Sariak dirutan, bidaiak nazioartera... Final nazionala, martxoaren 16an Lizarran (Nafarroa Garaia).

### Informazio gehiago:

ehmus.eus

## Arrateko zozketak

Gozotik amaitu eta hasi dute urte berria, ondoko bi argazkietan ageri direnek. Berriz zabalik den Aginagako Arrate tabernak otarroko zozketatu zituen urte amaieran. Hortxe sarituak; Pepi Kamino eta Maria Angeles Arruti. Zorionak! Iru-dien egilea: Arrate taberna.



## Aginagako Eskola, neguko ospakizunen atarian

Gabonetako ospakizunen ostean, neguko txanda orain Aginagako Eskolan. Ostiral honetan (urtarrilak 18), bazkalosteko klaseen baitan, danborrada saio txiki bat eskaintzekoak dira eskola barruan. Otsailaren 4an berriz, eguraldi ona bada, Santa Ageda bezperako kantu eskean irtetekoak dira.

## Kontzertu gaua

### Eliza Zaharrean

Aginagako Eliza Zaharra kultur elkargune gisa dinamizatzen jarraituko dute 2019an ere, bertako aginagarrek. Otsailaren 9rako urteko lehen kontzertu gaua antolatuko dute. 23:30etan hasita, Erasoko, Kokein eta Dj Bull goizaldera arte. Sarrerak 8 eurotan eskuratu ahalko dira aldeztu aurretik, Aginagako Arrate eta Usurbilgo Aitzaga tabernetan. Kontzertu egunean bertan ere eskuratu ahalko dira.

# San Tomas azokako apustuak badu irabazlea



Ondoko irudian duzue saritua: Liliya Ivanushkina. Zorionak!

Aginagako Eskolak abenduarren 16an NOAUA!ren San Tomas Azokaren baitan jarritako postuan, garbantzu

pote bat jarri zuen ikusgai. Barruan zenbat ale zituen asmatzen zuenak saski eder bat eskuratzeko aukera zuen.

1.351 garbantzu ale zeuden. Gehien hurbildu zena, Liliya Ivanushkina izan zen. 1.333 ale zeudela idatzi zuen.

## 500 lagunetik gora izena emanda, Irisasi BTTren probarako

Aste hasierarako jada 500 lagunek baino gehiagok izena emana zuten, urtarrilaren 27an ospatuko den Irisasi BTT "Hotzak Akabatzen" probarako. Usurbil, Donostialdea, Tolosaldea, Buruntzaldea, Oarsoaldea, Urola-Kostako lagunak bereziki. Bizkaia eta Nafarroa aldetik ere izen ematera animatu dira.

### Proba egunean ere eman daiteke izena

Urtarrilaren 25era arte kirolprobak.com atarian bideratu ahalko dira inskripzioak.

Bestela, baita proba egunean bertan, urtarrilaren 27an 8:45 arte Mikel Laboa plazan. 1940ko urtarrilak 31-2003ko urtarrilak 26 artean jaio zirenei dago zuzendua hitzordua, nahiz 13-16 urte arteko txirrindulariek ere parte hartu ahalko duten. Beti ere, "baldin



Urtarrilaren 25era arte egin ahalko dira inskripzioak kirolprobak.com atarian.

eta une oro heldu baten ardurapean badaude. Kasu haue-tan, izen ematea irisasibtt@gmail.com helbidearen bidez beteko da".

### Prezioa

Federatu gabeek 18 euro; federatuek 20 euro. Egunean bertan izena emanez gero, 25 euro ordaindu beharko dute

partaide orok, izan federatu edo federatu gabea.

### Hiru ibilbide aukeran:

Erraza (25 kilometro).

Ertaina (31 km).

Gogorra (40 km artekoa).

### Informazio gehiago:

andatza.com

irisasibtt@gmail.com

## Arraunketa probak erriean

Larunbat honetan urteko lehen txapelketak jokatu dira, 13:00etan hasita. Bi distantziantan jokatu dira proba hauek: 4.000 metrokoa Saikola-Orio artean eta 6.000 metrokoa, Mapil-Orio artean. Orio Arraunketa Elkarteak, Gipuzkoako Arraun Federakundeak eta Foru Aldundiak antolatuta, modalitate honetako probak izango dira Orio: Iraupen Txapelketa, Distantzia Luzeko Txapelketa, Aulki Mugikorra eta Arraunketa Olinpikoa. Infantilak, kadeteak

eta beteranoak Saikola-Orio artean lehiatu dira; jubenilak eta absolutuak Mapil-Orio artean.

### Oriako 25. Traineru Jaitsiera, martxoaren 9an

Eguna finkatua dute jada. Mende laurdena bete eta Aginagatik abiatu ohi den Oriako 25. Traineru Jaitsiera martxoaren 9an ospatuko da. Orio Arraunketa Elkarteak antolaturiko hitzorduaren baitan urtero moduan, bi distantzia ezber-



Errioko arraun denboraldia larunbat honetan hasiko da.

dinetako probak jokatu dira erriean; bat, 4 kilometrokoa, Saikola-Orio artean; bestea, 6 kilometrokoa, Mapil-Orio artean. Hitzorduak urtero, kategoria eta sorteri ezberdinetako arraunlariak bildu ohi ditu.

## Futbol partidak Haranen

### Urtarrilak 19, larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5B-Urnieta 5A

Udarregi 6A-Landaberri 6

■ 10:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6B-Urnieta 6A

■ 10:30 Infantil neskak:

Usurbil-Intxaurdi B

■ 11:30 Infantil mutilak:

Usurbil A-Ostadar

■ 15:30 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Euskalduna SD

■ 17:45 Kadete neskak:

Usurbil F.T.-Goierri Gorri

### Urtarrilak 20, igandea

■ 12:00 Lehen urteko alebinak

(2008): Usurbil-Lazkao

## Eskubaloio partidak kiroldegian

### Urtarrilak 19, larunbata

#### Eskola Kirola

Alebin neskak:

09:30 Udarregi 5A-Langile.

09:30 Udarregi 6C-Udarregi 6A.

■ Infantil mutilak:

10:45 Udarregi A-Ereintza.

■ Infantil neskak:

12:00 Udarregi A-Ereintza.

#### Usurbil K.E.

■ 16:00 Kadete mutilak,

Territoriala:

Usurbil K.E.-Amenabar B.

■ 17:30 Jubenil neskak,

Territoriala:

Usurbil K.E.-Tolosa.

■ 19:00 Senior neskak,

Territoriala:

Usurbil K.E.-Eibar.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
Patxi  
jaketxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak. asteazkenetik larunbatara

© 943 362725 · © 688 690 361

**ANTXETA**  
taberna-jaketxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzear. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m<sup>2</sup> eta garajeak 22m<sup>2</sup>. 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trasteleku eta bertan 33

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafetakoa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60 .

## Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Erdialdean pisua alokatzen da, 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena kanpoaldera. Hiru balkoi eta igogailua. Tlf: 670070562

Alokairuko pisu baten bila ga-

biltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbia. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 giletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziatuzko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatz 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alpe-

rroburu 3an. 699 306 158

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiari. info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketaren. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egite-



## Zorionak Josu eta aitona!

Muxu handi bat etxekoan partez.

## Heriotzak

## Mari Carmen Arregi Aizpurua

90 urterekin hil zen urtarrilaren 13an Zubietan

## María Santos Castro Miguel

81 urterekin hil zen urtarrilaren 12an Usurbilen



## Josefa Barrera Fernandez

83 urterekin hil zen urtarrilaren 15ean Usurbilen



ko. Erreferentziak eta esperientzia-  
rekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen.  
Interno, externo edo orduka. 631  
996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean.  
Helduak zaintzen. Interna, externa  
edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel.  
677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz.  
Arduratsua eta esperientziarekin.  
Etxeko lanak egiten, umeak edo  
nagusiak zaintzen. Orduka, interna  
edo externa bezala. Segituan lan-  
nean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo  
externa bezala. Pertsona helduak  
zaintzen, supermerkatuan, taber-  
netan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke,  
asteburu, jai egunetan eta gauean,  
baita erietxean ere. 606 661 048 /  
943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Inter-  
na moduan edo orduka. Dokumen-  
tazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen  
umeak zaintzen egingo nuke lan  
udara honetan: ekaina, uztaila  
edota abuztuan (goiz, arratsalde  
edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo per-  
tsona helduak zaintzen. Etxean,  
ospitalean, gauean, externa bezala,  
orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo exter-  
na bezala. Pertsona helduak edo  
umeak zaintzen. Urtebeteko espe-  
rientzia. Arduratsua, erreferentzia  
onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona hel-  
duak edo umeak zaintzeko. Espe-  
rientzia duen neska, arduratsua.  
Berehala lanean hasiko nintzake.  
637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak  
zaintzeko. Ospitalean, etxean,  
gauean. Garbiketa orokorrean ere  
bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo  
umeak zaintzen, ekaina eta uztaila,

goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak  
zaintzen lan egingo nuke. Interna,  
externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila  
nabil. Interna, externa, orduka.  
Helduak edo umeak zaintzen. 676  
188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil.  
Orduka lan egingo nuke. Helduak  
edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila  
nabil. Pertsona helduak zaintzen,  
hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila  
nabil. Pertsona helduak zaintzen,  
hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertso-  
na helduak zaintzen. Esperientzia

eta erreferentziekin. 662 910 181.

Emakume bat eskaintzen da  
pertsona helduak zaintzeko. Ge-  
riatriako eta lehen laguntzako  
ezagutzak ditut. Esperientzia etxe-  
ko lanetan eta antolamenduan.  
Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da,  
etxeko lanak egiteko edo umeak  
zaintzeko. Goizez edo arratsalde.  
Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsal-  
dez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak  
zaintzen, gauean, asteburutan,  
externa bezala edo garbiketa lane-  
tan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut  
adinekoak zaintzen. 25 urteko lan  
esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen,  
etxeko lanak egiten edo pertsona  
helduak zaintzen. Esperientzia ere  
erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lane-  
tarako eskaintzen da. 66118892.

18 urteko neska euskaldun he-  
rritar esperientziaduna naiz. Aste  
osoan zehar arratsalden umeak  
zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen,  
garbiketa lanak egiten, orduka,  
interna bezala. Tel. 642 238  
949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen,  
arratsaldetan 2 ordu edo aste-  
burutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta  
orduka garbiketarako egiten lan  
egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen,  
arratsaldetan 2 ordu edo aste-  
burutan. 663 776 223. Maribel

#### BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen  
Hezkuntzako oposaketak presta-  
tzeko talde bat osatu nahiko nuke  
ahalik azkarren. Klase partikula-  
rrak jasoko nituzke 2017. urtean  
atera zuen batekin, orduko prezioa  
adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito  
japonesez arrazako txoritxoak salgai.  
659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai.  
Scooter markakoa. Egokia elbarri-  
tuentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ari-  
ketak egiteko trifasikoa salgai.  
Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut  
3-4 urteko haurretatik hasita.  
Klase dibertigarri eta alaiak gaz-  
tetxoentzat eta azterketen  
prestakuntza nerabeentzat. CPE  
tituluduna. Natali 635909606

Oxelo markako patinete bat galdu  
dugu frontoi inguruan. Aurkitzen  
baduzu deitu: 615 760 826 telefo-  
nora. Izaro

Marradun garaje bat alokairuan  
Bizkarre auzoan 696014585

Ingleseko eta frantseseko klaseak  
ematen ditut, etxeetara joanda.  
Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren  
tamainako dordoka galdu dut. Ba-  
lio sentimental handia du. Aurkitu  
baduzu: 663 065 460.

Udarregi Ikastolan klase par-  
tikularak emateko jende bila  
gabiltza. Interesa baduzu pasa  
ikastolatik edo deitu! Telefono  
zenbakia: 943 36 12 16

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati-  
neteak, liburuak... Garbigunean.  
Doan hartu daitezke. Astelehe-  
netik ostiralera: 10:15-13:00 /  
16:00-19:00 artean. Jai egunak  
ez diren larunbatetan: 9:00-  
13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 17** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 19** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Astelehena 21** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteartea 22** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteazkena 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

## Urtarrilak 17 - Urtarrilak 27

**Osteguna 24** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 25** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 26** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 27** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda urtarrila

## 18 ostirala

- **Danborradak ikastetxeetan.** Aginagako Eskola: Arratsaldeko eskolen baitan danborrada saio emanaldia eskainiko dute ikasleek. Udarregi Ikastola: 16:00-16:20 HH eta LH ko ikasleen emanaldi bateratua Udarregi Ikastolan, Agerialdeko patioan.

## 19 larunbata

- **Arraunketa proba Aginaga-Orio tartean.** Ikus 19. orrialdea.
- **Tren zerbitzu bereziak Donostia Egunean.** Ikus 7. orrialdea.

## 20 igandea

- **Aginaga "Herri Txiki, Infernu Handi" telebista saioan.** 22:00etan ETB1n.

## Ate irekien Eguna ikastolan

I ndarrean den ikasturtearen erdibidera heltzearen garen honetan, hurrengora, 2019a 2020arekin lotuko duenera begira jartzeko garaia da. Ikastetxeetan matrikulazio epea zabaltzearen baita. Testu inguru honetan, Ate Irekien Eguna antolatatu du Udarregi Ikastolak urtarrilaren 26rako (larunbata).

10:30ean finkatu du biltzeko hitzordua, eraikin berriko jangelan. "Bertan, ikastolaren ezaugarriak eta funtzionamendua azalduko dira eta instalazioetan zehar ibiliko gara, ikastola ezagutzeko asmoz. Zatoz gure ikastola ezagutzera!", luzatu dute gonbita ikastolatik.

2019-2020 urterako matrikulazio epea, urtarrilaren 28an zabalduko dute eta o-



Urtarrilaren 26an egingo da Ate Irekien Eguna Udarregi Ikastolan.

tsailaren 8ra arte luzatuko da. Deialdia, 3-16 urte arteko ikasle berriei zuzendutako aurrematrikulazio kanpaina dugu honako hau.

Informazio gehiago: [udarregi.eus](http://udarregi.eus)

### Andatzako ikerketa arkeologikoen inguruko hitzaldia

- Urtarrilak 22 asteartea, 19:00.
- Hizlariak: Manu Ceberio Rodriguez eta Izaro Quevedo Semperena (Aranzadi Zientzia Elkartea).
- Tokia: Potxoenea.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

### Urtarrilaren 25ean, Gure Pakea Elkartearen batzar orokorra

Otsaila hasieran ospatuko duten Jubilatutako Astearen aurretik, bazkideen urteko batzar nagusia deitu du Gure Pakea Elkartea urtarrilaren 25erako. Arratsaldeko 16:00etan lehen deialdia, bigarrena 16:30ean.

### Datozenak

#### Bertso-afaria Aginagan, Andoni Egaña, Markel Eizagirre eta Sebastian Lizasorekin

#### Lizasorekin

Otsailaren 2rako, bertso-afaria antolatu dute Antxomolantxa Herri Elkartea eta Eliza Zaharrak Aginagan. Trikipoteoa, bertsoz girotutako afaria eta erromeria gauak osatuko dute datorren hilabeteko lehen larunbaterako eskaintza:

- 20:00 Trikipoteoa Arrate tabernatik.
- 21:00 Bertso-afaria Atarialde Elkartean, Andoni Egaña, Markel Eizagirre eta Sebastian Lizasorekin.

Menua:

- Perretxiko ezberdinen nahaskia.
- Bakailaoa saltsan.
- Txuleta "pitillo" piperrekin.
- Etxeko tarta izozkiarekin.
- Sarrerak: Aginagako Arrate tabernan salgai 30 eurotan.
- Oharra: sarrera kopuru mugatua (90 lagunentzat).
- Ondoren, erromeria: Ostolaza eta Lutxurdio.
- Antolatzaileak: Antxomolantxa Herri Elkartea eta Eliza Zaharra.



**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza  
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

[www.zaldigain.com](http://www.zaldigain.com) • [info@zaldigain.com](mailto:info@zaldigain.com)  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

# BAZKIDEEN TXOKOA



urtarrilaren 27an  
igandea,  
19:00 SuteGI

*Dantza  
filma  
ikusteko bi sarrera*

## noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu urtarrilaren 24an

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

TELMO ESNALEN FILM BAT

# noaua

## DANTZA FILMA

Urtarrilak 27, igandea  
SUTEGI AUDITORIOAN  
19:00

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan  
NOAUA! Kultur Elkartean eta Lizardin.  
Bazkideek 4 eurotan NOAUA!n bertan.



# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com)

### IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi  
berria 2019, primerako  
sagardoekin  
943.361.229



# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL [sidreria@sidrassaizar.com](mailto:sidreria@sidrassaizar.com) [www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

943 37 39 95

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

### 943 36 67 10



Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea

